

2011-06-28ko UDALBATZA BEREZIA

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko ekainaren hogeita zortzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar berezia egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU Udal taldekoak: Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Tomás Echeverría Sarasola, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Josu Yurrita Loitegui.

-EAJ/PNV udal taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Inork

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

1.- UDAL-TALDE POLITIKOAREN OSAKETAREN BERRI EMAN.

Legearen arabera udal-talde politikoak osatu behar dira , eta udal honetan hauek izango dira:

-BILDU UDAL-TALDE POLITIKOA. Kideak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Tomás Echeverría Sarasola, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Josu Yurrita Loitegui.

Ordezkarria: Noelia Lataburu Ortiz.

-EAJ-PNV UDAL TALDE POLITIKOA. Kideak: Javier Izaguirre Gomez.

Ordezkarria: Javier Izaguirre Gomez.

2.- ALKATEORDEAREN IZENDAPENAREN BERRI EMAN.

2011ko ekainaren 20ko 86 zenbakidun dekretuaren berri eman da eta alkateorde izendapena onartu da; hauek dira zinegotziak:

-Lehen alkateordea: Gorka Murua Macuso.

-Bigarren alkateordea: Noelia Lataburu Ortiz.

-Hirugarren alkateordea: Tomás Echeverria Sarasola.

Hori dela eta, Korporazioak aho batez erabaki du jakinaren gainean dagoela.

3.- UDALBATZAREN OHIKO BILERAREN ALDIZKAKOTASUNA ONARTZEA.

Aditzera eman da honako akordioaren proposamena:

“Tokiko araubidearen legedian ezarritakoari jarraiki, egiten den lehen saioan ezarriko da Udalaren Osoko Bilkuren ohiko saioen aldizkakotasuna. Era berean, ezarrita dago 5.000 biztanle arteko udalerrietan gutxienez 3 hilabete behin bilduko dela.

Hori ikusita, AKORDIO hau hartzea proposatu dute:

Udal honetako Osoko Bilkuraren ohiko saioak hilabete behin egingo direla adostea, zehazki, hileko azken asteartean, 19:30ean.

Jaieguna edo jaiegun bezpera bada, hurrengo asteartean egingo dute saioa, ordu berean.”

Hori dela eta, Korporazioak onartzea erabaki du.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

4.- ALKATEAREN ORDAINSARIARI ETA UDAL-KIDEEN DIETA ETA LOKOMOZIO-GASTUEI DAGOKIEN AKORDIOAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aditzera eman da honako akordioaren proposamena:

“Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua Tokiko Erakundeetako kideen eskubide ekonomikoak ezartzen

ditu, eta ordainsariak, kalte-ordainak eta laguntzak jaso ditzaketela xedatzen du.

Hori ikusita, AKORDIO hau hartzea proposatu dute:

1.- Alkateari baimena ematea kargua erabateko arduraldian bete dezan, eta ezartzea hilabetean 1.570 €-ko ordainsari gordina jasoko duela eta hamalau ordainketa izango dituela.

2.- Udal-kide bakoitzarentzako kalte-ordainak onartzea, kargua betetzeak eragiten dizkien gastuengatik, arau hauen arabera:

a) Ibilgailu pribatua edo motozikleta partikularra erabiliz gero, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren eta etorkizunean egiten diren aldaketen arabera dagozkion kalte-ordainak.

Era berean, gastu osagarriak (aparkalekua, TAO...) ordaintzea, fakturaren, ordainagiriaren edo tiketaren zenbatekoaren arabera.

b) Garraio publikoa erabiliz gero, justifikatutako gastu errearen arabera, kasuan kasu (txartela, ordainagiria...).

c) Dietak (otorduak, ostatua...), behar bezala justifikatutako gastu errearen arabera (faktura, ordainagiria...).

3.- Halaber, urteko aurrekontua egikaritzeko oinarrietan arau osagarriak onartzeko baimena ematea.”

Hori dela eta, Korporazioak onartzea erabaki du.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

5.- BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORRAK SORTZEA ETA BERE OSAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aditzera eman da honako akordioaren proposamena:

“Tokiko Araubideari buruz indarrean dagoen legediari jarraiki, eta Udalbatzak hala adosten badu, Udalbatzak erabaki beharreko gaiak aztertu, jakinarazi edo kontsultatzeko erakundeak osatuko dira, eta alkateak eta ordezkariak dituzten zinegotziek gai horiei jarraipena egingo die, Udalbatzari

dagozkion kontrol eskumenei kalterik egin gabe. Erakunde horiei Informazio Batzorde deitu ohi zaie. Iraunkorrak edo bereziak izan daitezke.

1.- Hori ikusita, Informazio Batzorde Iraunkor hauek eratzea adostu dute;

1.- Emakumeei buruzko Informazio Batzordea.

2.- Kultura-Euskarari buruzko Informazio Batzordea.

3.- Partaidetzari buruzko Informazio Batzordea.

4.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Batzordea.

5.- Gazteei buruzko Informazio Batzordea.

6.- Hirigintzari, Obrei eta Zerbitzuei buruzko Informazio Batzordea.

7.- Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzorde Berezia.

2.- Kide hauek osatuko dute Batzordea:

-3 zinegotzi, Bildu alderdi politikoa ordezkatzuz.

-Zinegotzi 1, EAJ alderdi politikoa ordezkatzuz.

3.- Hilean behin egingo dute bilera.

4.- Alderdi politikoek beren ordezkariak hautatuko dituzte, eta Alkatetzak alderdien Lehendakaritza eskuordetuko du.

5.- Informazio Batzorde guztiek uztailan bilera egingo dute, hainbat gai adosteko, besteak beste, ohiko saioen datak.”

Hori dela eta, Korporazioak onartzea erabaki du.

Hori dela eta, zuzenean batzordeetako kideen izendapena egin da eta alkateak batzordeetako lehendakariak ere izendatu ditu:

- Emakumeei buruzko Informazio Batzordea. Kideak:

Bildutik: Noelia Lataburu Ortiz, Gorka Murua Macuso eta Ainara Múgica Iruetagoiena.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Noelia Lataburu Ortiz.

- Kultura-Euskarari buruzko Informazio Batzordea. Kideak:

Bildutik: Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Ainara Múgica Iruretagoyena.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Gorka Murua Macuso.

- Partaidetzari buruzko Informazio Batzordea. Kideak:

Bildutik: Olaia Nieto Legarra, Tomas Echeverria Sarasola, Gorka Murua Macuso.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Olaia Nieto Legarra.

- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Batzordea. Kideak:

Bildutik: Ainara Múgica Iruretagoyena, Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Josu Yurrita Loitegui.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Ainara Múgica Iruretagoyena.

- Gazteei buruzko Informazio Batzordea. Kideak:

Bildutik: Tomas Echeverria Sarasola, Josu Yurrita Loitegui, Noelia Lataburu Ortiz.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Tomas Echeverria Sarasola.

- Hirigintzari, Obrei eta Zerbitzuei buruzko Informazio Batzordea. Kideak:

Bildutik: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

- Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzorde berezia. Kideak:

Bildutik: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Lehendakaria: Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Alkatea).

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

6.- BESTE ERAKUNDEETAN IRURAKO UDALEKO ORDEZKARIAK ONARTZEA.

Aditzera eman da honako akordioaren proposamena:

“Udal hau hainbat erakundetako partaide da eta erakunde horietarako ordezkariak izendatu behar ditu. Horregatik, proposamen hau egin da Udalbatzak onar dezan:

1.-UEMAn (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) ordezkariak:

-Noelia Lataburu Ortiz.

-Ainara Múgica Iruretagoyena.

2.-Tolosaldea Garatzenen ordezkaria:

-Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Titularra).

-Ainara Múgica Iruretagoyena (Ordezkoa).

3.-Loatzo Mankomunitatean ordezkaria:

-Gorka Murua Macuso (Titularra).

-Ainara Múgica Iruretagoyena (Ordezkoa).

4.-Tolosaldeko Mankomunitatean ordezkaria:

-Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Titularra).

-Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Ordezkoa).

5.-Gipuzkoako Ur Kontsortzioan ordezkaria:

-Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Titularra).

-Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Ordezkoa).

6.-Tolomendin ordezkaria:

-Olaia Nieto Legarra (Titularra).

-Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Ordezkoa).

7.- Euskal Fondoan ordezkaria:

-Ainhoa Ugalde Gorostiaga (Titularra).

-Josu Yurrita Loitegi (Ordezkoa).”

Hori dela eta, Korporazioak aho batez erabaki du proposamena onartzea eta akordio honen ziurtagiria erakundeetara igortzea.

7.- DIRUZAINAREN IZENDAPENA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusirik eta alkatearen proposamenaren arabera, udalbatzak aho batez erabaki du udal honetako Diruzain izendapena berrestea bertako administraria den Maria Jesus Olano Zubeldiarengan, indarrean dagoen legediaren arabera.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

8.- PRESO ETA IHESLARIEI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Bildu udal-talde politikoaren proposamena, udaletxeko balkoian honako testua duen kartela jartzeari buruzkoa: “EUSKAL PRESO ETA IHESLARI ETXERA”.

Javier Izaguirre Gomez zinegotziak kritikatu du proposamena, idatziz ez delako aurkeztu eta, bere ustez, horrela egin behar delako.

Alkatearen erantzuna honakoa izan da: proposamena nahiko sinplea dela eta zuzenean eta ahoz egin daitekeela.

Hori dela eta, proposamena bozkatu da eta honako emaitza lortu du:

-Aldeko botoak : 8 (Bildu).

-Kontrako botoak: 0.

-Abstentzioa: 1 (EAJ/PNV).

Hori dela eta, onartua geratzen da.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 20:30ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA